

## • TERMOMETROA •

PORTUAK ETA AIREPORTUAK

# Bilbok eta Baionak bioetanola begiz jo dute

Euskal portuetako salgaien trafikoak (ia 47 milioi tona) 2006an gora egin zuen, batez ere Bilbon, eta berdintsu eutsi zion Pasaian eta Baionan. Bilboko eta Baionako portuek interesa agertu dute bioetanolaren eta biodieselaren ekoizpen eta merkatuan.


Euskal aireportuetako salgaien trafikoa, aldiz, %13,2 jaitsi zen.

DANIEL UDALAITZ

## BILBOKO ETA BAIONAKO

portuek energia garbien barruan sartzen diren bioetanolaren eta biodieselaren ekoizpen edota merkatuan interesa agertu dute. Hala ondorioztatzen da 2006ko emaitzen aurkezpenean iritzi publikoari azaldutako plantatik. Euskal kostaldeko instalaziorik handienak dauzkan Bilboko portuko arduradunek aditzera eman zuten erakundeak jadanik oniritzia eman duela “biodiesela ekoizteko bigarren planta eta beste bioetanol planta bat eraikitzeko”.

Baionako portuko ordezkariak, bestalde, orain arte ohikoak izan diren zenbait trafikok izandako beherakada ikusita, porturako lan ildo berriak iragarri dituzte. Hala nola merkatu berriak —eta horien artean bioetanolaren merkatua— erakartzeko inbertsioak. Ildo horretan, Sevillako Abengoa enpresa espainiarrak Lack-en bioetanol findegi bat eraikitzeko asmoa du, funtsean artoa erabiliz bioetanola sortzeko. Gauzak aurrekusi bezala ateraz gero, datorren urtetik aurrera enpresa horrek Baionako portuaren zerbitzuak eta portuan bertan dagoen salgaiak biltegitratzeko LBC enpresaren



Hiru urtez Bilboko portuan asko igo da salgaien eta bidaiarien garraioa.

zerbitzuak erabiliko ditu. Baionako portuan 2006an ia 4 milioi tonako trafikoa ibili zen. Produktu finduak, artoa, ongarriak, sufrea, siderurgiako produktuak eta produktu kimikoak

dira bertako salgaien trafiko nagusiak.

Etanola eta biodiesela bezalako nekazaritzako erregai berriei dagokienez, azpimarratu beharra dago nekazariak eta nekazarien erakundeek mehatxua, iruzurra eta engainua ikusten dutela. Haien ustez, erregai horiek ez dute nekazaritzaren eta klimaren krisia konpontzeko eta, aitzitik, elikagaien ekoizpenarekin lehiari hasiko dira.

Merkataritzako euskal portuek 2006an guztira 46,7 tonatik gora mugitu zuten. Lehen aipatutako Baionako ia lau milioi tona baino gehiago mugitu zituen eta Pasaia portuek beste 5,5 milioi tonatik gora. Baionak aurreko urtekoaren antzeko kargari eutsi zion, baina Bilboko portuaren karga %12 handiagoa izan zen, eta Pasaia %1,7 handiagoa.

## Bilboko portua: gora egin du Txinako trafikoa

Egoera ekonomikoaren bilakaera ona portuetako trafikoan ere nabaritu da. Trafiko hori, beti bezala, egoeraren berri izateko termometro egokia da.

## Euskal aireportuetan gutxitu egin da salgaien trafikoa

Euskal aireportuetan %13,2 jaitsi zen salgaien trafikoa 2006an –34.101 tonatik gorakoa izan zen baina aurreko urtean 39.287 tonatik gorakoa–. Forondako aireportu arabarra izan da jaitsiera nabarmenena izan duena, hain justu euskal aireportuetako salgaien %85 kontrolatuz mugimendu handiena duen aireportua. Bizkaiko Loiuak 3.417 tona kudeatu zituen (%13,6 gutxiago), Hondarribiak (Gipuzkoa) 209 tona eta Noainek (Nafarroa) 59 tonatik gora. Jakina denez, Ipar Euskal Herriko Biarritzeko aireportuak bidaiariak besterik ez ditu garraiatzen.

Salgaien trafikoak izan duen jaitsiera Forondaren beherakadak eragin du. Forondatik 30.343 tona pasatu ziren 2006an, aurreko urtean baino %12,8 gutxiago. Salgaien trafikoaren arloan Espainiako Estatuko laugarren aireporturik garrantzitsuena izaten jarraitzen badu ere, etengabeko beherakada izan du azken hiru urteotan, eta

2006an izandako salgaien bolumena azken hamaika urteetako txikiena izan zen. Hala ere, adierazi beharra dago bidaiarien trafikoa %89tik gora igo dela hegaldi merkeak eskaintzen dituen Ryanair konpainiaren Londresako hegazkin bidaia berriei esker.

**Euskal aireportuetan %13,2 jaitsi da salgaien trafikoa 2006an. Jaitsiera nabarmenena Forondakoa izan da (argazkian).**



Bilboko portuan asko igo da hiru urtez jarraian salgaien eta bidaiarien garraioa. 2006an 37,2 milioi tona mugitu zituen, aurreko urtean baino ia lau milioi gehiago; %11,95eko igoera izan zuen beraz. Inportazioek %13 egin zuten gora eta esportazioek %9. Bilboko portua laugarren postuan dago Espainiako Estatuko portuen rankingean, Algeciras, Valentzia eta Bartzelonako portuen atzetik.

Petrolio gordina –ia bederatzi milioi tona– eta petrolioaren deribatu finduak –lau milioi tona– dira bertako trafikoko produkturik garrantzitsuenak. Ikatza, txatarra, produktu kimikoak eta bestelako mineralak, paper-orea

eta ordezeko makinak daude atzetik, baina oso urruti. Oraindik ere Britainia Handia da merkataritzako trukeak egiteko gune nagusia. Alabaina, Txinak dezente egin du gora azken urtean, bai edukiontzietan garraiatzen dituen salgai dagokienez, eta baita ohiko salgai orokorreki dagokienez ere. Bidaiarien garraioan, berriz, 185.000tik gora bidaiari garraiatu zituen 2006an, aurreko urtearekin alderatuta %4 gehiago.

Bilboko portuak 62 milioi eurotik gora fakturatu zuen. Sortutako baliabideak fakturazioaren %50 baino gehiago izan ziren, 31,8 milioi euro lortu ziren eta. Bestalde, urtean zehar egindako inbertsioak 33 milioi eurora iritsi ziren. Horretarako, Bilboko portuak 2,4 milioi euroko laguntza jaso zuen Europatik.

### Pasaia: txatarra produktu nagusia

Pasaiaiko portuko salgaien trafikoak iaz 5,5 milioi tonatik gora mugitu zituen, aurreko urtean baino %1,7 gehiago beraz. Portuaren fakturazioa, berriz, 13.700.000 eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baino %1,8 handiagoa. Oraindik ere txatarra da Pasaiaiko portuaren trafikoko produktu nagusia, salgai guztien %36,02 osatzen baitu. Alabaina, asko igo da automobilen eta siderurgiako produktuen trafikoa. Pasaiaik 232.000 ibilgailu pasatu ziren 2006an, horietatik 26.000 inportaziokoak eta 206.000 esportaziokoak. Gehien garraiatutako markak hauexek dira: Opel (87.000 ibilgailu), Mercedes eta Volkswagen. Siderurgiako produktuak, berriz, %5 gehitu ziren (1.400.000 tonara iritsi ziren), esportazioko 700.000 eta inportazioko beste hainbeste. Batez ere autoak eraikitzeke bobinak inportatu ziren. Hirugarren merkantzia garrantzitsuena ikatza izan zen, 723.000 tona garraiatu ziren eta. Ikatz gehiena Pasaian dagoen zentral terminalera joan zen.

Pasaiaiko arrantza portuaren jardura, bestalde, urtetik urtera beherantz doa. Lehengo urtean %12,5 jaitsi zen –esaterako, iaz 11.271 tona arrain bildu zituen eta aurreko urtean 12.873 tona–. Hori gertatzeko arrazoi nagusia antxoaren kalak itxi izana da. ■

Pasaiaiko arrantza portuaren jardura, bestalde, urtetik urtera beherantz doa. Lehengo urtean %12,5 jaitsi zen –esaterako, iaz 11.271 tona arrain bildu zituen eta aurreko urtean 12.873 tona–. Hori gertatzeko arrazoi nagusia antxoaren kalak itxi izana da. ■



Txatarra da Pasaiaiko portuaren trafiko produktu nagusia.